

Euskal AEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleen ia bi herenek lortu dute goi-mailako bigarren hezkuntza edo goi-mailako hezkuntza

16 urteko edo gehiagoko ikasleen artean, emakumeak gehiago dira hezkuntza-maila guztietan

Eustatek landutako datuen arabera, 2022. urtean Euskal AEko 16 urteko edo gehiagoko pertsonen % 63,5ek (hau da, 1.193.366 pertsonak) derrigorrezko hezkuntza gainditu dute eta goi-mailako bigarren hezkuntza gisa edo goi-mailako hezkuntza gisa sailkatutako prestakuntza-maila lortu dute. Beraz, ehuneko 1,2 puntuko igoera gertatu da 2021. urtearekin alderatuta; urte hartan, 1.168.748 pertsona izan ziren.

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, lortutako prestakuntza-mailaren arabera. 2021-2022

	2022	2022 (%)	2021	2021 (%)
Lortutako prestakuntza-maila	1.879.375	100	1.877.675	100
A. Bigarren eta beheko hezkuntzako lehen etapa (0-2 maila)	686.009	36,5	708.927	37,7
0. Lehen hezkuntza baino gutxiago	31.983	1,7	37.327	2,0
1. Lehen hezkuntza	200.395	10,7	216.344	11,5
2. Behe-mailako bigarren hezkuntza: DBHra arte eta balioideak	453.631	24,1	455.256	24,2
B. Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta goi mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa (3-4 maila)	382.308	20,3	374.963	20,0
3. Goi Mailako Bigarren Hezkuntza: Babilergoa, Lanbide Heziketa, erdi-mailako zikloa eta balioideak	370.307	19,7	363.295	19,4
4. Hirugarren mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza: 3. mailako lanbide-ziurtagiriak eta balioideak	12.001	0,6	11.668	0,6
Goi-mailako ikasketak (doktoregoa barne) (5-8 maila)	811.058	43,2	793.785	42,3
5. Lanbide-heziketako goi-mailako zikloaren eta balioideen jarduerak	291.103	15,5	286.555	15,3
6. Unibertsitate-ikasketak, diplomaturak eta balioideak	186.876	9,9	165.899	8,8
7. Lizentziaturak, gradu bikoitzak eta masterrak	311.523	16,6	318.722	17,0
8. Doktorego-bartela edo balioidea	21.556	1,2	22.609	1,2

Data 2023ko Irailaren 29a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren udal estatistika

Hezkuntzaren Sailkapen Nazionala (CNED-A) oinarritzat hartuta, lortutako ikasketen lehen taldea bigarren hezkuntzako lehen etapa edo hortik beherakoa da, zeina beheko mailetatik hasi eta oinarritzako eta derrigorrezko ikasketetaraino iristen baita. Talde horretan, 16 urteko eta gehiagoko biztanleen % 36,5 daude sailkatuta, eta portzentaje horrek ehuneko 1,2 puntuko beherakada izan du 2021. urtearekin alderatuta. Talde horren barruan, honako hauek daude sartuta: lehen mailako ikasketak amaitu ez dituzten pertsonak (% 1,7), lehen hezkuntzako ikasketak egin dituzten pertsonak (% 10,7) eta bigarren hezkuntzako lehen etapako ikasketak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Oinarritzako Hezkuntza Orokorreko, Oinarritzako Batxilergoko eta abarretako tituluen balioideak) eta lanbide-irakaskuntza batzuk egin dituzten pertsonak (% 24,1).

Bigarren taldea bigarren hezkuntzari eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko mailari dagokiena da, eta 16 urteko eta gehiagoko biztanleen % 20,3 biltzen ditu, hau da, 2021ean baino 0,3 puntu gehiago. Maila horrek batxilergoak eta haren aldaerak eta oinarritzko eta erdi-mailako lanbide-irakaskuntzak biltzen ditu. Hirugarren taldea goi-mailako hezkuntzari dagokiona da, eta biztanleen % 43,2 biltzen ditu; beraz, 0,9 puntuko igoera izan du aurreko urtearekin alderatuta. Talde horren barruan, % 15,5ek goi-mailako lanbide-heziketa egin dute (291.103 pertsonak).

Alde txikiak daude prestakuntza-mailan lurralde historikoen artean, eta handiagoak eskualdeetan

Lurralde historikoen artean, portzentaje-alde txikiak agertu dira 16 urteko edo gehiagoko biztanleek lortutako prestakuntza-mailari dagokionez. Arabaren kasuan, handiagoa da bigarren hezkuntzako lehen etapari edo hortik beherakoari dagokion A taldeko prestakuntza-maila duten pertsonen proportzioa, eta % 37,4ra iritsi da. Bizkaian, berriz, % 36,8koa izan da, eta Gipuzkoan % 35,6koa. Arabak du, halaber, bigarren hezkuntzako bigarren etapari eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko mailari dagokien B taldeko prestakuntza-maila duten pertsonen proportziorik handiena, eta % 21,5era iritsi da. Gipuzkoan, berriz, proportzio hori % 20,7koa izan da, eta Bizkaian % 19,8koa. Goi-mailako ikasketei dagokien C taldeko prestakuntza-maila duten pertsonen proportziorik handiena, berriz, Gipuzkoak izan du (% 43,7). Bizkaian, proportzio hori % 43,4ra iritsi da, eta Araban % 41,1era.

Euskal AEko 16 urte eta gehiagoko biztanleria, prestakuntza-mailaren arabera, lurralde historikoari jarraiki (%). 2021-2022


	Euskal AE		Araba / Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021
Lortutako prestakuntza-maila	1.879.375	1.877.675	280.449	278.904	986.633	987.220	612.293	611.551
A. Bigarren eta beheko hezkuntzako lehen etapa (0-2 maila)	36,5	37,8	37,4	38,7	36,8	38,0	35,7	36,9
B. Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta goi mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa (3-4 maila)	20,3	20,0	21,5	21,1	19,8	19,4	20,7	20,3
Goi-mailako ikasketak (doktoregoa barne) (5-8 maila)	43,2	42,3	41,1	40,2	43,4	42,6	43,7	42,7

Data 2023ko Irailaren 29a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren udal estatistika

Eskualdeen artean, goi-mailako hezkuntzan agertu diren aldeak handiagoak izan dira. Honako hauek nabarmendu dira, 16 urteko eta gehiagoko biztanleen erdiek baino gehiagok dutelako goi-mailako hezkuntza: Plentzia-Mungia (% 56) eta Gorbeialdea (% 52,4). Bi eskualde horiek ehuneko 12,8 eta 9,2 puntutan gainditu dute hurrenez hurren, Euskal AEko batezbestekoa. Arabako Errioxan eta Enkartzioetan, berriz, gutxi gorabehera biztanleen herenek dute goi-mailako prestakuntza (% 33,6k eta % 36,3k, hurrenez hurren).

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, lurralde-eremuen eta goi-mailako hezkuntzan lortutako prestakuntza-mailaren arabera (%). 2022/01/01



Azkenik, Euskal AEko hiriburuetan ere aldeak agertu dira goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen proportzioan. Ehunekorik handiena Donostiakoa izan da (% 50,8), eta, haren atzetik, Bilbo (% 47,4) eta Gasteiz (% 40,5) kokatu dira, lurralde historikoetan ikusitako ordena berean.

Goi-mailako hezkuntza gainditu duten gizonen proportzioa emakumeena baino handixeagoa da

16 urteko eta gehiagoko gizonen zein emakumeen kasuan, biztanle gehien biltzen duen taldea goi-mailako hezkuntza gainditu dutenena da: % 43,9 gizonen kasuan, eta % 42,5 emakumeen kasuan. Haren atzetik, bigarren hezkuntzako lehen etapa edo hortik beherako maila dutenak kokatu dira, eta, kasu horretan, emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa izan da (% 38,7 eta % 34,1, hurrenez hurren). Azkenik, bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko maila dutenen kasuan, gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa izan da (% 22 eta % 18,8, hurrenez hurren). Lurralde historikoak kontuan hartuta eta goi-mailako hezkuntzari dagokionez, Araban bizi diren emakumeak nabarmendu dira, haien proportzioa gizonena baino handiagoa izan baita (% 40,7 eta % 41,4, hurrenez hurren).

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, lortutako prestakuntza-mailaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (%). 2022

	Euskal AE			Araba / Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Lortutako prestakuntza-maila	1.879.375	903.087	976.288	280.449	136.562	143.887	986.633	469.897	516.736	612.293	296.628	315.665
A TALDEA	686.009	34,1	38,7	105.011	36,2	38,6	362.675	34,0	39,2	218.323	33,5	37,7
B TALDEA	382.308	22,0	18,8	60.228	23,1	20,0	195.549	21,4	18,4	126.531	22,3	19,1
C TALDEA	811.058	43,9	42,5	115.210	40,7	41,4	428.409	44,6	42,4	267.439	44,2	43,2

Data 2023ko Irailaren 29a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren udal estatistika

16 urteko edo gehiagoko biztanleen % 11k ikasten jarraitzen dute, eta, haien artean, erdiak baino gehiago goi-mailako ikasketak egiten ari dira

2022. urtean, Euskal AEko 16 urteko edo gehiagoko biztanleen % 11 (207.608 pertsona) ikasketa-mailaren batean matrikulatuta zeuden, aribideko ikasketetarako Hezkuntzaren Sailkapen Nazionalaren (CNED-P) arabera.

Ikasle horien erdiak baino gehiago (% 51,8, hau da, 107.499 pertsona) goi-mailako hezkuntza jasotzen ari dira. % 39,7 (82.389 pertsona) bigarren hezkuntzako eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko mailan daude. % 6,1 (12.686 pertsona), berriz, bigarren hezkuntzako lehen etapan edo beheagoko mailetan daude. Azkenik, % 2,4 (5.034 pertsona) helduentzako hezkuntza ez-formalean matrikulatuta daude.


16 urteko edo gehiagoko ikasleak sexuaren arabera bereizten baditugu, ikusiko dugu emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa dela (% 52,5 eta % 47,5, hurrenez hurren). Alde hori uniformea da hezkuntza-maila guztietan. Lehen mailan, emakumeak % 53,5 dira, eta proportzio hori gizonena baino ehuneko 7,1 puntu handiagoa da.

Proportzio horiek oso antzekoak dira gizonen eta emakumeen kasuan, biak bereiz aztertuta. Nolanahi ere, B taldean (bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa) gizonen proportzioa handiagoa da (+1,9 puntu), eta gainerako mailetan, berriz, emakumeen proportzioa da handiagoa, batez ere hezkuntza ez-formalean (+1 puntu).

Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza bizileku den udalerrian ikasten dira nagusiki, eta goi-mailako hezkuntza, berriz, lurralde historiko bereko beste udalerrri batean

2022. urtean, bigarren hezkuntzako lehen etapako edo hortik beherako eta bigarren hezkuntzako eta goi-mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko ikasleak baino gehiago (% 54,5 eta % 55,8, hurrenez hurren) beren udalerrian ikasten ari dira. Bestalde, Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleen % 45 (hau da, 48.349 pertsona) beren lurralde historikoko udalerrri batean egiten ari dira goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo unibertsitate-ikasketak. Maila horretan, beste autonomia-erkidego batean edo atzerrian ikasten ari diren pertsonen proportzioa handia da (% 18,1). Egoera hori ez da agertzen gainerako ikasketa-mailetan.

Euskal AEko 16 urteko eta gehiagoko ikasleak, uneko ikasketa-mailaren eta ikasketa-lekuaren arabera (%).
2022/01/01



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren udal estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62